## Araugintzako ebaluazio txostena

## Informe de evaluación normativa

### 3/2015 Foru Dekretu- Araua, abenduaren 29koa, zerga geroratuen aktiboei aplikagarri zaien erregimena aldatzen duena

### Decreto Foral-Norma 3/2015, de 29 de diciembre, por la que se modifica el régimen aplicable a los activos fiscales por impuesto diferido

Txosten honen bitartez bete nahi da uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 6.4 artikuluan ezarritakoa, bertan xedatzen baita zenbait foru arauren kasuan Batzar Nagusiek araugintzako ebaluazioa egin behar dutela, indarrean jarri eta urtebetera.

A través de este informe se trata de dar cumplimiento al mandato legal recogido en el artículo 6.4 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, según el cual, ciertas normas forales serán sometidas al procedimiento de evaluación normativa por las Juntas Generales, una vez transcurrido una año desde su entrada en vigor.

2017-02-23T11:08:41Z
ORGGCCC4F6F0-15E5-4F65-9256-CEDB085866DB

## Sarrera

## Introducción

2017-02-23T11:08:41Z
ORGGCCC4F6F0-15E5-4F65-9256-CEDB085866DB

2014ko urtarrilaren 1ean, indarrean jarri zen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren ekainaren 26ko 575/2013 (EB) Erregelamendua, kreditu entitateen eta inbertsio enpresen zuhurtziazko beharkizunei buruzkoa eta 648/2012 (EB) Erregelamendua aldatzen duena. Erregelamendu horren xedea arau multzo bat ezartzea zen, entitate horien kaudimena hobetzeko.

El 1 de enero de 2014 entró en vigor el Reglamento (UE) 575/2013 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 26 de junio, sobre los requisitos prudenciales de las entidades de crédito y las empresas de inversión, y por el que se modifica el Reglamento (UE) 648/2012, cuyo objeto era establecer un conjunto de reglas a efectos de mejorar la solvencia de las mencionadas entidades.

Arau horien artean, eta zerga arloari dagokionez, aktibo fiskal geroratuen tratamendu berria dago. Kasu horretan, berrikuntza nagusia da kreditu horiek kreditu entitateen funts propioetatik kanpo utzi beharra dagoela (core capital, CET1), salbu eta horiek bihurtzeko mekanismoak badaude.

Entre las mismas, y en cuanto al ámbito tributario se refiere, se encuentra el nuevo tratamiento de los activos fiscales diferidos, cuya principal novedad radica en que deben ser excluidos de los fondos propios de las entidades de crédito (core capital, CET1), salvo que existan mecanismos de conversión de los mismos.

Hori zela-eta, beharrezkoa gertatu zen aktibo fiskal geroratuen erregulazio tributarioa egokitzea Europako araudiak ezarritako

Como consecuencia de ello, hubo que adecuar la regulación tributaria relativa a los activos fiscales diferidos para adecuarla a los nuevos requisitos

beharkizunekin bat etor dadin, eta zeregin hori burutzeko 17/2015 Foru Araua onartu zen, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauan zuzenketa teknikoak sartzen dituena.

exigidos por la normativa europea, aspecto que se hizo a través de la Norma Foral 17/2015, de correcciones técnicas a la Norma Foral sobre Impuesto de Sociedades del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Hala eta guztiz ere, 2015eko apirilaren 7an, Europako Batzordeak adierazi zuen Espainiari aurretiazko ikerketa bat egiten hasiko zitzaiola ustez estatu laguntzen araudia arlo honetan ez betetzeagatik. Aurrekoaren ondorioz, onartutako neurria Batzordeak estatu laguntzatzat hartu baino lehen, aldaketa bat adostu da Batzordearekin eta Espainiako Bankuarekin, segurtasun juridikoa emateko eta behar diren bermeak izateko.

No obstante, el 7 de abril de 2015 la Comisión Europea anunciaba el comienzo de una investigación preliminar a España por un posible incumplimiento de la normativa de ayudas de Estado en esta materia. Como resultado, antes de que la Comisión determinara que se trataba de ayudas de Estado, se ha consensuado una modificación tanto con la Comisión como con el Banco de España, que ofrezca la seguridad jurídica y las garantías suficientes.

Zehazki, 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan ondorioak izateko, aktibo fiskal geroratuak sailkatu dira zerga oinarri negatiboen forma hartu dutenak

En particular, con efectos para los períodos impositivos iniciados desde el 1 de enero de 2015, se realiza una clasificación de los activos fiscales diferidos, para separar aquéllos que

2017-02-23T11:08:41Z
ORGGCCC4F6F0-15E5-4F65-9256-CEDB085866DB

forma hori hartu ez dutenetatik bereizteko, eta, gainera, denak zerga geroratuagatik sortutako aktibo fiskal gisa birsailkatu dira.

se han materializado en forma de bases imponibles negativas de los que no, y se reclasifican todos como activos fiscales por impuesto diferido.

Horrez gain, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan ondorioak izateko, zerga geroratuen aktibo fiskalen bihurketa entitatearen benetako tributazioarekin lotuta geratzen da, halako moduz non aktibo horiek Sozietateen gaineko Zergaren kuotarekin erlazionatutako zatian bakarrik bihurtu baitaitezke kreditu galdagarri zerga administrazioaren aurrean.

Además, con efectos para los períodos impositivos iniciados a partir del 1 enero de 2016, se vincula la conversión de los activos fiscales por impuesto diferido a la tributación efectiva de la entidad, de modo que sólo podrán convertirse en crédito frente a la Administración en la parte que se relacione con la cuota del Impuesto sobre Sociedades.

Azkenik, araubide iragankor bat ezartzen da 2008tik 2015era bitartean zerga geroratuagatik sortutako aktibo guztietarako, eta araubide horretan entitateei aukera ematen zaie aktibo horiek kreditu galdagarri bihurtzeko zerga administrazioaren aurrean, betiere prestazio bat ordaintzen badute. Diferentzia honen emaitzari %1,5 aplikatuta kalkulatuko da prestazio hori: aktibo fiskal geroratuen

Por último, se establece un régimen transitorio para todos aquellos activos por impuesto diferido generados entre 2008 y 2015, en virtud del cual se posibilita a las entidades su conversión en crédito frente a la Administración, siempre y cuando abonen una prestación equivalente al 1,5% de la diferencia entre el exceso de activos fiscales diferidos y la cuota líquida del Impuesto sobre

2017-02-23T11:08:41Z
ORGGCCC4F6F0-15E5-4F65-9256-CEDB085866DB

soberakina ken zergaldi horietako Sozietateen gaineko Zergaren kuota likidoa.

Sociedades correspondiente a dichos períodos impositivos.

**Sortutako ondorioak**

2015eko urtarrilaren 1ean indarrean sartu ziren neurriak bakar bakarrik izan ziren aktibo fiskal geroratuen birsailkapen bati buruz, zerga oinarri negatiboen forma hartu dutenak forma hori hartu ez dutenetatik bereizteko.

Foru Dekretu-Arau honen aldaketa esanguratsuenak 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera sartu ziren indarrean, eta oraindik ez dago bere eraginaren informaziorik. Hori 2016ko ekitaldi fiskaleko aitorpenetan ikusiko da, 2017an aurkeztuko direnak.

**Proposatutako helburuen eta lortutako helburuen arteko lotura**

Foru Dekretu-Arau honetan sartutako aldaketen asmoa zen indarrean dagoen araudia

**Efectos producidos**

Las medidas que entraron en vigor el 1 de enero de 2015, hacían referencia únicamente a una reclasificación de los activos fiscales diferidos, para separar aquéllos que se han materializado en forma de bases imponibles negativas de los que no.

Las medidas más significativas de este Decreto Foral-Norma entraron en vigor el 1 de enero de 2016, por lo que todavía no se dispone de información sobre su efecto, que se verá en las declaraciones del ejercicio fiscal 2016 que se presentaran en 2017.

**Correspondencia entre objetivos propuestos y objetivos alcanzados**

Con las modificaciones incluidas en este Decreto Foral-Norma se pretendía adecuar la normativa

ORGGCCC4F6F0-15E5-4F65-9256-CEDB085866DB 2017-02-23T11:08:41Z

Europar Batasunaren eskakizunetara egokitzea. Horrela, lortu nahi zen gure ordenamenduan ezarritako erregulazioa, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunean jasotako beharkizunak erabat betetzea eta horien araberakoa izatea. Eta helburu horiek, guztiak, lortu dira.

vigente a las exigencias de la Comisión Europea, de forma que la regulación establecida en nuestro ordenamiento fuera plenamente respetuosa y resultara conforme con las prescripciones establecidas en el Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea. Objetivos, todos ellos, que se han alcanzado.

**Laburbilduz**

Aztertutako Foru Dekretu-Araua eraginkortasunez bete da, proposatutako helburuak bete dira, inongo arazorik gabe eta traba berezirik gabe bete.

Erregelamenduzko garapen bereziak aurrera eramateko beharrik ez da egon, eta haren aplikazioan ez da gertatu inolako judizializazio kasurik.

**En resumen**

El Decreto Foral-Norma analizado se ha puesto en cumplimiento de manera efectiva, se han alcanzado los objetivos propuestos, sin ningún tipo de problemas en su aplicación y sin ningún contratiempo en especial.

No ha tenido que llevarse a cabo ningún tipo de desarrollo reglamentario especial, y hasta la fecha no ha producido ningún caso de judicialización en su aplicación.

ORGGCCC4F6F0-15E5-4F65-9256-CEDB085866DB 2017-02-23T11:08:41Z

*Dokumentu honen osotasuna eta sinadura baieztatzeko, egiaztapen kode seguru hau sar dezakezu egoitza elektronikoa: www.gfaegoitza.eus*
*Compruebe la integridad y firma de este documento, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: www.gfaegoitza.eus*
ORGGCCC4F6F0-15E5-4F65-9256-CEDB085866DB 2017-02-23T11:08:41Z